

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure ideia sute prebentzioaren bideo bat egitea da. Horretarako, ikastetxearen solairu desberdinetan QR bat jarriko dugu Youtubeko bideo batera eramaten duena. Bideoak sute baten aurrean zer egin behar den pausoka azaltzen digu.

Protokoloan pauso guztiak simple eta argi azaltzen dira, terminologia tekniko konplexurik gabe, irakasleek erraz ulertu dezaten. Horrela, prebentzio- eta larrialdi-neurriak ikustea eta ikastea askoz errazagoa eta eskuragarriagoa egiten dugu.

Komunikazio-sistema eraginkorra bideoan izatea bilatzen dugu. Larrialdi-egoeretan komunikazioak funtsezko garrantzia du, eta gure bideoetan zehazki erakusten dugu nola antolatu behar den irakasle eta ikasleen arteko komunikazioa egoera horietan. Prozedurak garbi ikusiz, larrialdietan denbora galdu gabe jardun ahal izango dute.

Irakasleekin hitz egin genuen eta komentatu ziguten ikastetxeko su prebentzioaren arautegia ez zegoela ondo azalduta, gaizki seinalizatuta zegoela eta ia inork ez zekiela zer egin behar zen momentu zehatzean. Horregatik, ideia ona iruditu zitzaigun eta aurrera egin genuen proiektu honekin. Taldeko guztiak irudi eta soinuko ikasleak garenez simulakroaren bideo bat egitea pentsatu dugu.

Gainera, garapen iraunkorrerako helburuko (GIH) puntu batzuekin lotu ahal dugu gure proiektua. Hasteko, 4. helburua daukagu, non guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea dauka helburu bezala. Eta gero, 9. helburua. Honek, azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea dauka helburutzat.

